

Bero-beroan



www.otamotz.com

URRETXU-ZUMARRAGAKO Zintzo Mintzo elkarteak *Otamotz* herri aldizkariari ukitu berria eman zion duela hiru hilabete eta orain, www.otamotz.com ataria jarri du abian. Gipuzkoako bi herri horien inguruko informazioa eskaintzen du web gunea: albisteak, zerbitzuen gida, kultur agenda, loturak... Halaber, *Otamotz* aldizkariaren zenbakiak irakurgai jarri dituzte. Atari berriaren arduradunek herritarrek proiektuan parte hartzea bultzatu nahi dituzte; nahi duen orok bere albiste, argazki, audio eta bideoak bidal ditzake. Horietako batzuk multimedia atalean ikus-entzun ditzakezue jada. Xabier Lasak Urretxu-Zumarra-

gako euskalkiari buruz idatzitako liburua ere kontsulta daiteke.

Aitor Aranaren azken hiru lanak

LINGUA NAVARRORUM bilduman aurkeztu ditu hiru aleak; Iruñeko aldaerari, Txulapaingo euskarari eta zaraitzuerari buruzkoak. Dagoeneko zortzi ale kaleratu ditu Aranek bilduma horretan. Guztira 24 plazaratu nahi ditu.

Ingelesa euskara baztertze

SORTZEN-İKASBATUAZEN iritzi, Nafarroako Gobernu ingelesezko ikastetxeak ezartzen ari da euskarazko irakaskuntzaren hedapena eteteko. Gobernuak ingelesezko metodo esperimentaleko ikastetxeak jarri ditu martxan. Hala, Sortzen-Ikasbatuazek politika horri helegitea jarriko diola jakinarazi du, elkartearen iritzi

Gobernuak ez baitu eskumenik hizkuntza eredu berriak sortzeko.

Musika hiztegia kaleratuko du aurki Elhuyarrek

LEHEN URRATSA aurkeztu berri dute; musika-notazioari eta orkestra sinfonikoari buruzko bi horma-irudi, euskaraz. Laster mila hitz inguruko musika hiztegia plazaratuko du Elhuyarrek.

“Gaztetxulo” “Gaztezulo” bihurtu da

APIRILEKO ZENBAKIA jada ez da izango *Gaztetxulo*, *Gaztezulo* baizik. Donostiako *Iruixulo* aldizkariatik sortu zen gazteentzako agerkariak izena aldatu du eta baita diseinua eta edukiak astindu ere. 80 orrialdeko koloretako aldizkariak 10.400 aleko tirada du Euskal Herrian. Maiatzaren 1ean www.gaztezulo.com web gunea abian jarriko dute.

BAHEA

Yves Haran Iparraldeko hezkuntza publiko elebiduneko aholkulariak *Berrian* esanak: “(...) Gure publikoa, gurasoak, ez dira halabeharrez euskaltzaleak. Elebitasuna ongi ikusten dute, ingelesa ikasiko luketen bezala ikastea euskara. Baina bertze eskaintzarik ez dutelako hartzen dute euskara. Batzuek aitortzen dute euskara euskaldunen hizkuntza dela eta ikasi behar dela. Baina, oro har, ez dakigu gurasoek onartuko duten.

(...) EEPekin batera horretan ari gara. Gela elebidun gehiago ireki, ikertu nola neurtuko dugun euskara maila. Baina oren kopurua legez mugatua dagoenez, pedagogi alorrean egin beharko dira aitzinamenduak. Euskararen promozioan dago erronka. Gurasoei azaldu behar diegu haur elebiduna gehiago garatzen dela, eta zergatik hautatu euskara eta ez ingelesa. Ondoren etorriko da neurketa, haurrek 8, 11, 14 edo 17 urte dituztela, Frantziako ereduari jarraikiz. (...) Esperantza izateko arrazoiak badaude. Egun, 132 irakasle ditugu. 132 funtzionario euskaraz ari direnak. Duela 24 urte ez zen bat bakarra”.

Lemoiz, Pasaia eta Iberdrola

Lemoizko zentral nuklearra eta Pasaiaiko zentral termikoa izatera zihozten eraikinak Iberdrolarenak dira eta aurreko astean albiste izan ziren. Batetik, zentral termikoaren itxiera eskatzeko ekintza egin zuten Greenpeacekoek euskal ekologistek lagunduta. Bestetik, zergadunek jada amortizatua dagoen Lemoizko eraikina eskatu du Iberdrolako presidentek, berak baitu lehentasuna erostera koan eta ziklo konbinatuko zentrala eraiki nahi du. Eusko Jaurlaritzaren mende dago Lemoizko orubeen etorkizuna, baita ixtear den Pasaiaiko zentral termikoarena ere. Ongi pentsatu beharko luke, inolako erabakirik hartu aurretik. Lemoizko eraikinak herri borondatearen oniritzi gabe eraiki ziren eta frankismoak babestutako enpresa baten ezar-

pen eta larderiarekin. Ahal den neurrian, hasierako itxurara itzuli beharko lituzkete, Basordas senaia zenera, alegia. Eusko Jaurlaritzak parke naturala egin beharko luke, hainbeste min eta hildako eragin zuen inposizio frankista hura gogorarazteko. Munstro nuklearraren kontra hainbeste mobilizatu zen Herri honek hori merezi du eta ez munstro energetiko gehiago. Bestalde, Pasaiaiko zentral termikoak urtebetean Gipuzkoako automobil-parke osoak baino CO₂ gehiago isurtzen du. Pasaiaik bere onera itzultzeko eskubidea du, zentral hori bere ingurutik ezabatuz. Frankismoak eta frankismo ondorengoak gure Herrian inposatu zituen astakeriak ordaintzeko modua litzateke.

Juan Mari Arregi

Hauteskundeak eta blokeo usaina

ENAM-ENTZAT oso garrantzitsua da datozen udal eta foru hauteskundeetan dagokion ordezkariak eskuratzea. Batasunarekin ez du egingo, Abertzale Sozialisten Batasunarekin (ASB) ere ikusi egin behar, baina denak adierazten du ezetz. Ondorioa da, beste alderdi edo zerrendaren bat baliatuko duela horretarako. Seguruenik 2003an EHAKrekin izandako zirrikituak zabalik jarraituko du 2007ko maiatzean ere, hauta-



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

gaitza horrekin edo beste batekin. Bihotzak eta arrazoiak diote, ASBk hauteskundeetara aurkezteko erabateko eskubidea duela; analisiak dio ASB ez dela bakarrik hauteskunderi begira prestatu, bestela ezker abertzalekoek beste modu batera prestatuko zuketela jokaldia, antolatutakoak ez duelako egungo Alderdien Legearen langa gaintzen, nahiz eta berau betetzeko konpromisoa adierazi den. Eta lege horren langa gaintuko balu hobe, horrek esan guraiko bailuke bake prozesua bide onetik doala. Baina ez dirudi hori denik.

Jose Luis Rodriguez Zapateroren borondate maila neurtu nahi da ASBekin, baina udal eta foru hauteskunderi begira ez dirudi honek

halako patata beroari helduko diotik. Eta orain horretarako gaitasunik izan ezik, nola heldu autodeterminazioari eta lurralde eskaerei agintaldian geratzen zaion urtebeteko epean? Bake prozesua kale itsura bide doa zuzen-zuzenean.

Barajaseko atentatuaren ondoren, Zapatero eta Espainiako Gobernuaren jarrera ikusita, zirrikitu ugari zabalik direla irudikatu da, besteak beste, Iñaki De Juana Euskal Herriratz edota Arnaldo Otegi ez espetxeratze ko fiskaltzatik egindako mugimenduekin. Baina horiek mugitu arren, arazo politikoaren muinari lurraldetasuna eta erabaki eskubide klabea helden ez bazaio jai dago, ENAMen ikuspegiaren arabera. Eta hori hala

bada, zein da berriz ager daitekeen eszenatokia? Barajasekoa.

Ezker abertzaleak, bestalde, ez du erabat garbi adierazi zer beharko litzatekeen borroka armatua alboratzeko. Anaitasuneko autonomia proposamena hor dago, baina ez da nahiko Batasunak zer eskatzen duen irudikatzeke. Zer da eskatzen dena, EAE eta Nafarroako erabaki eskubideak aintzat

hartzea? Edo proposatzen den Hegoalderako autonomi estatutu hori hemendik urte batzuetara –seitik hamarrera– onartu ahal izateko konpromisoa? Bigarren hipotesi honetan Nafarroa eta PSN dira giltzarri eta ezker abertzalearen ahalegina litzateke sozialista nafarrak 1978ko posizio-ramatea.

Bi hipotesiak dira zailak eta konplexuak, baina bigarren hipotesiak indar handiagoa balu, ez da zaila irudikatzea blokeo egoera gaintzeko dauden zailtasunak. ETak iragarria dauka su-etenak indarrean jarraitzen duela, baina atentatuak egiteko aukera ere zabalik duela. Azken asteetako mugimenduek kezka barreiatu dute han-hemenka.

Argitalpen honen edizioan lankide:



k u t x a